


Gestio txostena

Gestio txostena



B i l t z a r n a g u s i a

Zbkia

**ZA
BAL
TZEN**

TXT 20151

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

ILAB

25 urte lanean

GESTIO TXOSTENA



1.- Biltzarren arteko zikloaren ezaugarriak

1.1.- Testuingurua 5. Biltzar Nagusi honen aurrean

5. Biltzar Nagusi honi hasiera ematean, LAB proiektua martxan jarri zenetik hogeita bost urte bete berriak ditugun honetan, testuinguru zail baina aldakorrean, egoera konplexu baina itxaropentsuan bizi gara. Ibilbide politikoan aurrera goazela, egiazko bidegurutzeta dugu hauxe.

Azken lau urte hauek egungo marko juridiko-politikoaren krisia areagotu dutenez, baldintzak egokiago ditugu Euskal Herriko gizon-emakumeok beste eszenario batera pasatzeko eta, noski, sorrera-prozesu bati hasiera eman diezaiogun, euskal herritarren borondatea demokratiko-ki operatibizaten joateko, sektore abertzaleen konpromizuarekin.

Lizarra-Garazi akordioa, Udalbiltza lehenbiziko euskal sujetu instituzional moduan martxan jartzea eta, nola ez, abertzaleen artean jarduteko sortu diren hitzarmen eta elkarlaneaneko espazioak benetako "oinarizko kanpamentu" bihurtu dira, Euskal Herri osoarentzako balio izango duen marko juridiko-politiko berria ekarri eta hemen gara dezagun.

ETAren su-etenak sekulako bultzada politikoa eragin zuen; su-etena bertan behera uztea, berriz, ausardiaz konpromizuak hartuz eta arrisku politikoak asumituz, den-denok gainditu behar dugun krisialdiaren adierazle da. Estatuak argi eta garbi erakutsi du azken hamalau hilabeteotan ez duela bakerik nahi, abertzaleok errenditzea baizik: Euskal Herriaren nortasuna eta, hortaz, erabakiak hartzeko gaitasuna menpean hartzea, horixe bakarrik nahi dute Estatuak.

Abertzale eta aurrerazaleok konpromizuak hartu eta ahaleginak egin behar ditugu, Estatu espainol eta frantsesaren zapalkuntzazko, presiozko, indarkeriazko, ezarpenezko estrategiari erantzuna emateko. Euskal gizartearen kemena bideratuko duen etorkizuna moldatu behar dugu guk, indar horiek baliagarri eta ugari bihurtzeko.

Azken hilabeteotako gertakari eta dinamika politikoek, abertzaleen aldetik, estrategia nazionalaren determinazioan aurrerapausu handia ondorioztatu dute. Lehenaldiko eskema akastuak gainditurik, estrategia nazional (Euskal Herria, nazio) sendoa eta Euskal Herri osoko errealitate soziopolitiko eta kultural anitza uztartzen asmatu behar dugu.

1.2.- Testuinguru ekonomiko-sindikala

Euskal Herriko errealitate politikoa bidegurutze eta pasabide ekonomiko eta sozial gisa agertzen den bitartean, erreferentzia eta perspektibek kontraesanez josiriko panorama erakusten dute.

Aldakin makroekonomikoen hazkuntza iraunkorraren atzetik ez dago horien eraginaren korrespondentziarik, Euskal Herriko milaka lagun langabezia, prekarietate eta egoera sozio-laboralari dagokionez.

Euskal enpresak industrian lorturiko hazkuntza ekonomiko eta produkzio- zein negozio-gaitasuna berreskuratu izanari esker, langabeziako zifrak makilatu bai, baina funtsean ez dira hobetu euskal langileeen lan-baldintzak, hots, enpleguaren kalitatea.

Etekinak metatzeko helburuz, enpresarioen estrategia berehalakoiak eta indarrean dagoen lan-arautegiaren ondorioz prekarietatea gora doa, sasi-autonomoak eta azpikontratak ugaltzen ari dira..., eta, horrenbestez, enpresetan klase-sujetuak, langileriak, zatiketa larritik ordaintzen du. Estrategia horren helmuga, sindikalismoa, eta sindikatuek enpresetan duten benetako kontrabotere, ahultzea besterik ez da.

Euskal gazteriaren %90ak pairatzen duen langabezia eta prekarietate egoera, izurrite horren feminizazio gorakoa (geroz eta gehiago, emakumeak jasaten duelako), gure gizartean somatzen diren pobrezia eta desmailak, etab., erakunde eta enpresetatik botatzen dizkiguten zinismoz beteriko diskurtsoen gainetik nabarmentzen dira.

Produktibitatea, enpresen etorkizunaren defentsa eta antzeko kontzeptuen gibelean, interesen borroka eta klase-borroka dago: bertan, gehienetan enpresarioak ahalik eta etekin handienak irabazi nahi ditu, langilearen lan-baldintza eta lan-osasunaren bizkarretik. Bestelako hitzetan, teknologia berriak, kapital-lana borrokan errealitate berriak... bai, baina aspaldiko interes eta objektiboen arteko kontrakotasun ber-berak.

Hazkuntza horrek oraindik ere ondorioztatzen duen bikoizketa sozioekonomikoari erantzuna ematea dela eta, sindikalismo abertzalea suspertzea berebiziko aurrerapidea izan da, erakuntza nazional eta sozialaren estrategian. Euskal Herriaren errealitate nazional, instituzional eta kulturala defendatu eta garatzeko eta, bestetik, gehiengo den langileriaren interesen arabera eredu soziala altxatzeko hainbat konpromizu bereganatu ditu sindikalismo abertzaleak.

35 lanorduko astea errebindikatu eta defendatzeko autonomiak, soldata sozialak, lan-harremanen euskal guneak eta bestek, euskal gehiengo sindikala martxan jarri dute erakuntza sozial eta nazionala taxutzeko, langileria den euskal gehiengo (herri garen aldetik, aitortu behar zaizkigun eskubideetatik haratago) euskal subirautasunaren potentzialtasunak baloratzen has dadin: potentzialtasun horiek dira euskal gizarte osoak behar duen eredu sozial egituratu eta orekatuagoa lortzeko alternatiba.

Gaur arte, euskal historian sindikalismo abertzalea ez da izan gehiengoa eta, era berean, sekula ez du izan orain betetzen ari den eginkizuna. Etsi-etsian sinesten dugu gainera, Euskal Herriaren etorkizuna langileek osaturiko gehiengo sozialak bultzatuko duela edo, bestela, ez da nazio-erakuntzarik izango.

2.- Eskuhartzearen balantzea

2.1.- Gogoeta orokorra

LABek euskal gizarteari eta langileriarri, bereziki aportatu dizkion osotasunezko eta berriazko erronkak finkatu egin ditu 1996-2000 ziklo honek. Aurreko Biltzar Nagusian bi helburu nagusi jarri genituen. Batetik, Euskal Herriko eszenatoki politiko berria irekitzean sindikalismo abertzalea protagonismoz janztea eta, bestetik, ekintza sindikalaren dinamizazioa bultzatzea; horregatik esaten genuen euskal sindikalismoa astindu egin behar zela.

Elkarren kontrako kojunturak eta errealtatearekiko kezka badaude ere, goian aipatutako bi kontu horiek berretsi egin dira gure jardunean. Zikloa agortua zegoela planteatu genuen Leioan (ELAk, geroago, Gernikan gauza bera esan zuen): indar berrien eta bultzada indartsuen beharra zuen gure aldarrikapenak, baina denboran zehar bidea ibili dugu, LABen ekarpen garrantzitsuari esker.

Sindikalismo abertzalearen erreferentzialtasuna eta proposamenak batera egiteko ahalmenari esker baldintza egokiak sortu ziren, besteak beste, Lizarra-Garazi hitzarmena den fase berriaren abiagunera iristeko.

LABek 1992ko Biltzarrean planteatu eta 1994az geroztik gauzatu duen ELArekiko ekintza sindikalaren batasuna bultzatzeak sekulako eragin politiko eta sindikala izan du. Bi erakundeek harturiko konpromizuak eta eginiko elkarlanak, urte hauetan EHNE, ELB, ESK, EILAS eta HIRUra zabaldua, Euskal Herriko gizartea eta nazioa eraikitzeke borrokari ekarpen itzela egin dio.

Gure ikuspuntutik, ekintza-batasun horrek proiektio estrategikoa du, beraz, eraikuntza nazional eta soziala sakontzeari loturik doa.

Era berean, 35 lanorduko astea eta soldata sozialaren alde, maiatzaren 21eko Greba Orokorra arte zabaldu genuen prozesuak LABek lortu nahi duen mugimendu sindikalaren astinketa eta suspertze horrekin kointziditu du.

Lehendabiziko aldiz agertu da sindikalismo abertzalearen protagonismoa erreibindikazio sozio-laboralengatiko Greba Orokor batean, CCOO eta UGTren aldetik Madrildik beti etortzen zitzaigun uheratik kanpo. Langileen erreibindikazioei behar bezalako erantzuna emateko proposamen eta gaitasunez abiatu da sindikalismo abertzalea.

Horrenbestez, Lizarra-Garazi eta maiatzaren 21eko Greba Orokorra bihurtu dira lau urte hauetako balantzearen erreferente.

2.2.- Eskuhartze sozio-politiko

Orain eginiko gogoeta orokorraren baitan, azken bi urteotan egin diren aurrerakuntzez beste alderako jokamolde edo jarrerak ikusi ditugu sindikalismo abertzalean.

Biltzararte honetan, sindikalismo abertzaleak eta LAB-ELA ekinbide-batasunak berebiziko garrantzia izan dute.

ETAk 1996ko ekainean eskainitako su-etenaldiko jarduerak, presoen aldeko lehendabiziko ekimen unitarioak bultzatzea (96ko azaroaren 30eko manifestazioa, 97ko azaroan Ibaetako ekimena), 1997ko abenduko greba eta manifestaziorako deialdia, 1999ko urtarrilean presoen alde eginiko manifestazioa, beste marko juridiko-politiko baten alde 1998 eta 1999ko Aberri Egunean emaniko agiriak, Maiatzaren 1ean Iruñean egindako ekitaldi nazionala, 1999ko abenduan bestelako marko batera iragateko proposamena... Hamaika ekimen eta ekitaldik frogatu dute urte hauetan LAB-ELAren inguruan eraturiko euskal gehiengo sindikalaren indar eta ahalmena. Are eta ahaltsu eta indartsuago, lau urteotan esparrua zabaldu delako EHNE, ELB, HIRU, ESK eta EILAS erakundeetara.

Ekimen horietan LABek izan duen eraginak, batetik, eta presoen eskubideen alde gorpuzturiko dinamikek, bestetik, argi eta garbi erakutsi digute 4. Biltzarrean adierazitako ildo eta helburuak bete dituela Sindikatuak.

Erreferentzia hori positiboa izanik ere, aipatutako ekimenak bereganatu edo barneratzeko unean, nola gizartean hala lantokietan, gora-behera handiak gertatu dira. Goi mailako (hau da, Sindikatuko zuzendaritzak gestionatutako) erabaki edo ekimen guztiak ez dituzte sekzio sindikalek modu berean edo beretsuan gizartearengana igorri; beraz, horien hedapena eta eragina mugatuak gertatzen dira. Bestela esateko, ez dugu lortu gure militante eta afiliatuak Sindikatuaren erronka eta alternatiben altaboz eta biderkatzaile izaterik.

Balantze honetantxe kokatu behar dugu azken hilabete hauetan ikusi dena. Gure iritziz, koiunturaren garrantzia eta gehiengo sindikalaren konpromizu, protagonismo eta erantzun-mailaren arteko proportzioa ez da egokia izan; alderantziz, ELAren jokaerak galarazi dio sindikalismo abertzaleari testuinguru horretan bere gaitasun eta eraginez kokatzea.

Lizarra-Garazi hitzarmena erdietsi arte euskal gehiengo sindikala Madrilgo strategiaren kontrako erantzun politiko eta soziala egituratzeko erreferentzia garrantzitsua izan bazen ere, Lizarran alderdi politikoek protagonismoa irabazi zutenetik eta ETAk su-etena aldarrikatu zuenetik, koiuntura politikoan euskal sindikalismoa bigarren mailako sujetu pasibo bihurtu da.

Subiranotasunezko estrategia egituratzeko borrokaren fase honetan, LABen ustez, euskal sindikalismoa ezin izan daiteke alderdi politikoaren subsidiario edo laguntzaile hutsa; zeharo aitzitik, bere autonomia eta konpromizutik, beste eszenatoki politiko bat lortzeko Euskal Herriak aurrera daraman borrokan erreferente nagusi izan behar du: zer garen eta zer ordezkatzeko dugun jakinik, alderdien protagonismoa baldintzatu gabe, baina irekitako prozesuari ekarpenak eginez, geure errealitate organizatibo eta sozialetik.

Adiera horretan, fase hau gainditu eta euskal gehiengo sindikala osatzen dugun erakundearen artean ahalegin eta konpromizuak batu egin behar ditugu, subiranotasunaren aldeko gehiengoaren determinazioan eta dinamismoan bultzagile izan gaitzen..

2.3.- Ekintza sindikala

Lau urteotako balantze sindikala esaldi bakar batean eman dezakegu: azken urteotan gel-dirik egon bada ere, fase hura gaindituta, suspertu egin da euskal sindikalismoa.

4. Biltzar Nagusian aldarrikatu genuen astinketak agerpen zehatza izan du hainbat arlotan: LABek lortu duen protagonismo sindikalean, 35 lanorduko aste eta soldata sozialaren erreibindikazioan (lana eta aberastasuna banatzeko strategiaren gehieneko erreferente gisa), eta langileriaren mobilizazioa berriro eragitean, gai sozio-laboralengatik lehendabiziko Greba Orokorrak sindikalismo abertzalea aitzindari izan duenak.

Euskal mugimendu sindikalak proposamenak egin eta langileria mobilizatzeko gaitasuna suspertzeko, LABek egin duen lana funtsezkoa izan da. Eskakizun sozio-laboraetan, ELAren ekintza sindikalaren batasunak berriazko erreferentzialtasuna hartu behar zuen, sindikatuen arteko elkarlana politikoegi ez agertzeko eta, noski, sindikatuen elkarlanean dinamika negoziazio kolektiboaren esparrura mugatuz, enpresa edo sektoreetan.

35 lanorduko astea eta soldata sozialaren eskakizunen inguruan sindikalismoa eragiteari esker, bestelako gizarte - eta gazte - erakunde batzuetara gerturatu gara; era horretan, enpresario eta administrazioen erabakiak baldintzatu dituen fronte sindikal eta soziala ahalmenaz hornitzeko baldintza aproposak sortzen hasiak gara, LAB eta ELAren indar kuantitatibo eta kualitatiboan oin harturik.

Biltzarrate honetan LABek biziki hartu du parte iharduera propio zein bateratuetan. Horren adierazle dira Euskal Herrirako Eskubide Sozialen Gutunaren alde garatutako borroka eta

prekarietate eta eskusio sozialaren aurka Europan zehar egindako zenbait martxatan parte hartu izana.

Nabarmentzekoak dira lan-osasunaren defentsan garatutako ekintza sindikala eta lan-istripuen aurrean lantokietan gauzatutako mobilizazioak ere. Iharduera sindikal honek etorkizunean langileen lan-baldintzak benetan hobetzeko ekimen tinkoak bideratzeko gaitasuna indartu digu.

Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren aldeko konpromizuaren barnean ekimen eta proposamen desberdinak planteatu izan ditugu, kasu batzuetan ELA, EHNE eta HIRUrekin batera, azpiegitura eta euskal sistema finantzieroari buruz zein politika fiskal eta aurrekontu politikaren inguruan. Plantemenduok, hala ere, topo egin dute, behin eta berriro, Administrazioen ukapenezko jarrerarekin.

Era baikorrean baloratzen dugu kooperatibetan gure afiliazioa hedatu eta sail sindikalak sortu izana. Gure ustez, bide honetatik, ekonomia sozialaren esparruan emandako lan baldintzen okertzeari aurre egiteko beharrezkoa den ekintza sindikalerako oinarriak jartzen ari gara.

Euskal sindikalismoaren erreibindikazio eta mobilizazio-jauziaz egin dugun gogoetak badu bestelako alderdi bat, kezkatzera edo, gutxienez, gauzak erlatibizatzen eraman gaituena.

Erreibindikazioen suspertze horrek oinarritzko ekintza sindikalean (sekzio sindikaletan, enpresetan) izan dituen eraginak askoz ere gora-beheratsu eta mugatuagoak izan dira: maila konfederalean landutako diskurtso, jarrera eta jokaera mobilizatzailerik ez dute izan islada homogenea oinarrietan, LABek alor honetan ahalegin bereziak egin dituen arren.

Sektore eta enpresetako Negoziazio Kolektiboak defentsazko jarreretan segitzen du, ardatz eta diskurtso konfederalekin behar bezala lotu gabe. Laneguna murrizteko borroka, aparteko lanorduen desagerpenak, prekarietatearen kontrako erantzunak... ez dute izan behar bezalako agerpenik, ez negoziazio kolektiboan, ez eta ekintza sindikal orokorrean ere.

Aurrejubilazio eta aparteko lanorduei buruz, enpresarioekin 1999ko urtarrilean sinatutako Hitzarmen Interkonfederalekin agintzen zigun ekintza sindikal eta lan-dinamika behar beste gauzatu ez izanak, bere aldetik, oinarritzko ekintza sindikala eta estrategia konfederala egokiro lotzeko hartu behar dugun konpromizuan eta egin behar dugun lanean sakontzeko premia erakutsi digu.

1998ko ordubeteko lanuztean eta 1999ko 24 orduko Greba Orokorrean planteatutako mobilizazio-politikaren deszentralizazioa eta erantzuna eskarmentu onuragarriak izan dira: horrelakoak ugaltu behar ditugu langileen protagonismoa areagotzeko eta erreibindikazioen bultzada hori enpresa eta lantokietan zabaltzeko.

Sindikalismoaren berpizkundea horretan bi arlo, LAB Gazteak eta LAB Emakumeak, indartzea eskarmentu onuragarria izan dugu: bertara baliabide gehiago bideratuz eta arlo horiek

Sindikatuaren osotasunezko jarduerarekin estuago egituratuz sakondu behar ditugu.

Gazteria langilearen arazoetara, pobrezia, langabezia eta prekaritatearen feminizazioa proposamen eta erantzun zehatzez osaturiko dinamikekin gerturatu gara: hurbilketa nabarmena izan bada ere, hori bakarrik aski ez denez, Sindikatuko egitura guztietatik bultzatu behar dira arlo horiek.

Euskal gazteria lan-merkatuan esplotazioz eta segurtasun ezaz ari da sartzen: egoera horiei LABek erantzuna eman behar die, bai sekzio sindikaletatik, bai antolakuntza-egituratik ere.

Irekitako prozesua dela eta, sindikalismo abertzaleak egokiro jokatu ez duela esaten duen indar berarekin, bere buruari eta besteei kritika egiten dio LABek, maiatzaren 21eko grebaren deskapitalizazioa dela eta: Greba Orokorra ez da behar bezala gestionatu, hilabete hauetan ez diogu jarraipenik eman, ez negoziazio kolektiboan, ez eta 35 lanorduko astearen aldeko borrokari eman beharreko erantzunean ere.

Ez koiuntura politikoak ez bestelako fenomenoek ere, ez dute 35 lanorduko astearen aldeko (hau da, enpleguaren aldeko) presio sozialaren sakontzea baldintzatu behar. Horrenbestez, patronal eta administrazioen aurkako, lanaldia murriztearen aldeko, 35 lanorduko astearen akordioaren aldeko, aparteko lanorduen kontrako... erantzun-frontea berriro ireki behar dugu, negoziazio kolektiboa dinamika konfederalaren uztarpean ipinita.

Balantze labur honetan uste dugu ekintza-batasunak (hau da, euskal sindikalismoaren jokakerak) egin duela biltzarrarte honetan aspaldi eskatzen genuen jauzia baina oinarri-oinarrian hedatuko bada, oraindik ere badugu zer bultzatu asko. Bestela esateko, enpresario eta administrazioen aurrean, eragile sindikal garen aldetik, botere eta agintaritzaren berreskuratzeko norabidean goaz baina ibili beharreko tartea luze dugu oraindik.

Lan ildoak norabide zuzenean daude. Irekitako dinamikan sakondu eta alternatibazko eredu soziala formaz eta edukiz hornituko duten eskubide eta erreibindikazioen alde borrokatze-ko prest gauden milaka sindikalista eta langileren indarrak eragin behar ditugu. Hortaz, aurreko Biltzar Nagusian iragarri eta, neurri handi batean, lau urte honetan gauzatutako astinketa sakondu egin behar dugu orain.

Herri-mugimenduen neurritz kanpoko potentzialtasunak aldarrikatuz, gizartearen aldakuntzan sindikalismoak izan behar duen eginkizun funtsezkoa arduragabekiaz eta sinplekeriaz auzitan jarri nahi dutenen aurka, Euskal Herriaren aldakuntza politiko eta soziala lortzeko alternatiba den aldetik, sindikalismoaren erabateko papera erreibindikatzen du LABek.

3.- LAB proiektuaren hedapena

3.1. Antolamenduaren garapena

3.1.1.- Antolamendu ikuspegi orokorra

Antolamendu-alor hutsetik, balantzea zuri-beltza da, hau da, aurrerapausuak bai, baina errealitate kezkarriak ere topatzen ditugu.

4. Biltzarretik sortutako erronkak, arloak eta sektorializazioa bultzatzearen ingurukoak izan ziren, batik bat.

Arlo horiei dagokienez, LAB Emakumeak eta LAB Gazteak garapen onuragarri baina urria izan dute. Tartean, langabetuak antolatzeko eragozpenak direla medio, ez gara izan LAB Langabetuak garatzeko gai. Hasitako prozesua finkatu egin behar dugu 5. Biltzar Nagusi honetan, eta horretarako, erakunde osoak balioetsi behar du arlo guztien garapenak izan dezaketen garrantzia, Sindikatuari begira. Arloak osagarri edo lagungarritzat jotzeko joera hauteman da, Sindikatuaren egitura guztien osotasunezko eskuhartzearen osagai direla argi eta garbi antzeman gabe.

Sektorializazioari dagokionez, bi norabidetan egin da lana: batetik, lehenagotik zeudenak finkatzea; bestetik, sortu gabeko sektoreak gorpuztea. Osotasunezko balantzea onuragarria den arren, sektoreak baliabidez eta lurralde-egiturez behar bezala egituratzea akaso ez zen egokiro planteatu eta landu.

Nolanahi ere, balantze honetan eta antolamendua ardatz bakarria izango lukeen gogoetak baino gehiago kezkatzen gaitu sekzio sindikalak behar bezainbeste eragin eta dinamizatu ez izanak. Sekzio sindikalak ditu Sindikatuak euskarri; sekzio sindikalak behar bezain ongi garatuta ez badaude, gure antolakuntza egitura baldintzapean eta, batez ere, behar bezala engrasatu gabe egongo da gure jarduera sindikal eta sozio-politiko hobetzeko unean. Sekzio sindikalei buruzko gogoeta hau funtsezkoa dugu 5. Biltzar honetan.

Nabarmen dezagun, bukatzeko, Sindikatuaren garapena eta funtzionamendu eta bitarteko-koen barne-modernizazioa harmonizatzeko unean zailtasunak izan ditugula. Desmaila horrek era askotako arazoak sortu dizkigunez, lehenbailehen konpondu beharra dago: horretara ere bideratu behar ditugu gure ahaleginak.

1999ko apirileko Biltzar Nazionalean eginiko ildoko gogoetak sakondu behar dira, hau da, erakunde osoaren egituraketa eta jarduera hobea ekartzen lagunduko duten eginkizun eta lanei erantzuteko, epe laburrean barne-antolamenduaren garrantzia adieraziko duen eredu proposa-

tzea: Sindikatuaren informatizazioa, trebakuntza-plan egokiekin osatua; giza baliabideei buruzko politika; gestio ekonomikoaren hobekuntza; lan metodologia, etab.

3.1.2.- Zuzendaritza egituren jarduera

Zuzendaritza egituren jardueran, aurreko fasea aldakuntza nabarmenik egin gabe pasa ondoren, aurrerapausu nabariak eman dira Exekutiboan eta Idazkaritza Nazionalaren arteko harremanetan zein Idazkaritza Nazionalaren lan dinamika propioan. Hala ere, lan-metodoak, bileren prestaketa eta dinamizazioa, eta abar sakondu eta hobetu beharra dago oraindik: zuzendaritzan partehartzea eta eztabaida eta, bereziki, Sindikatuko egituren arteko harremana aberastu nahi badugu.

Azken urte t'erdian Biltzar Nazionala bizkortzea faktore mesedegarria izan da; halakotzat, hurrengo biltzarrarte jarraitu eta garatu beharra dago, eztabaidatzeko, jorratzeko eta erabakiak hartzeko Sindikatuaren oinarriko egitura bihur dezagun.

3.1.3.- Lan eta ebaluazio tresnak

Balantze honetan, bete gabeko helburutzat eman behar dugu ardura guztietan (konfederalak, lurralde eta sektore-alorretakoak) planik eta ebaluaziorik gabe jardun izana. Hasiera batean Idazkaritza Nazionaletik plangintza eta ebaluzio politika bultzatu baldin bazen ere, ezinbestekoa den lan-mekanika hori ez da behar bezala sustatu eta egonkortu Sindikatuan.

Ardurek eta arduradunek plangintza-ebaluazio sistemarik ez izatearren, ezin dugu baloratu irizpide objetiboekin militante askoren lana; horrela, ardura eta arduradun guztien eraginkortasunaz, egiturei erabakiak hartzea oztopatu edo eragotzi egiten zaie.

3.2. Afiliatuen-ordezkarien bilakaera

3.2.1.- Afiliazioa

Espektatiba guztien gainetik, afiliatuak %21ean ugaltu dira, LABen hazkuntza ahalmenak egiaztatuz:

	abe-95	abe-99	aldea
Araba	2431	2947	516
Bizkaia	8772	10039	1267
Gipuzkoa	8195	9986	1791
Nafarroa	2718	3797	1079
Guztia	22116	26769	4653

Afiliazioaren hazkuntza garrantzitsu hori ez da geure burua asetzeko daturik: erronka handiagoei aurre egiteko akuilua izan behar du, elkarrekin loturiko bi helburu bete ditzagun: batetik, erakundea garatzeko eta zabaltzeko baliabideez hornitzea; bestetik, Sindikatuaren helburuekin konpromizu estuagoa har dezan gero eta langile gehiagok.

LABen afiliazioa indar handiagoz ugaltzeko eta ugaltzeko beharra dago. Sekzio sindikalez sekzio sindikal kanpaina eraginkorragoa eginez, bilakaera hori harik eta garrantzitsuago izango litzatekeela sinesten dugu etsi-etsian. Enpresetan LABek jaso dituen 56.000 boto luze horiek afiliazioan finkatu behar dira eta, horretarako, sekzio sindikalek lanean jardun eta konfidantza ematen diguten langile horiekiko komunikazio egokia ezarri behar dute.

3.2.2.- Ordezkaritza

Gure ordezkaritza sindikalaren bilakaerari dagokionez osotasunezko aurrerakuntza mese-degarria izan da: Hego Euskal Herrian puntu bat igo da, gure Sindikatua %15,48an utzirik; horrela, EAEko hirugarren indar sindikala ginen (%16,21), otsailaren bukaeran.

	1996ko urtarrila	2000ko urtarrila
% Ordezkaritza	%14,48	%15,39
Delegatuen kopurua	2.960	3.384
Botoen kopurua	49.176	56.297

konparaketa

	1/01/96		1/01/00		Aldea	
Araba	305	11,84	308	11,29	3	-0,55
<50	93	9,60	111	9,90	18	0,30
>50	212	13,19	197	12,25	-15	-0,94
Bizkaia	914	11,69	959	11,90	45	0,21
<50	371	10,72	357	10,47	-14	-0,25
>50	543	12,47	602	12,95	59	0,48
Gipuzkoa	1223	22,36	1405	24,65	182	2,29
<50	558	20,91	584	23,75	26	2,84
>50	665	23,74	821	25,33	156	1,59
Nafarroa	524	11,32	676	13,16	152	1,84
<50	219	9,85	234	10,05	15	0,2
>50	305	12,85	442	15,74	137	2,89

Hego EH	2965	14,48	3384	15,48	383	1,00
<50	1238	13,20	1286	13,80	48	0,60
>50	1727	15,36	2062	16,76	335	1,40
Baskong.	2442	15,40	2672	16,21	230	0,81
<50	1022	14,40	1052	15,05	30	0,62
>50	1420	16,20	1620	17,06	200	0,86

Aurrerakada hori harik eta nabarmenagoa da enpresa ertain eta handian: horietan, EAERI dagokionez, LAB ia bigarren indarra da (%17ko ordezkartzarekin) eta Nafarroan ia %16ra iritsi gara. Hego Euskal Herrian, osotasunezko zenbaketak Komiteetan bigarren indar sindikal izateko aukera objektiboa ematen digu, hurrengo hauteskundeetarako.

Nolanahi, gogoeta hau oro har onuragarria bada ere, ez dizkigu Araban eta Bizkaian ditugun datu kezkarriak ezkututzen: bi herrialde horietan Sindikatuaren bilakaera ez da berdintsua izan. Biltzar ondoko fasean indartu behar dugun ildoak LAB enpresa txikian eta Araban eta Bizkaian zabaltzea da. Egiturek ere helburu hau kontuan izan eta berari egokitu behar zaizkie, bai ereduz, bai inbertsioz ere.

4.- Balorazio orokorra

Gestio txosten honetan bertan adierazi diren gogoetak kontuan izaki, Idazkari Nazionalak aurkeztu duen balantzea onuragarria da baina hobetzeko modukoa.

Sindikatuak, lau urte honetan, 4. Biltzar Nagusian planteaturiko erronka nagusiei erantzun egokia eman die eta, gainera, bere eskuhartze sozio-politiko eta sindikalean LABen eragin kualitatibo eta kuantitatiboaren hedapena sendotu egin du.

Goraka doan proiektu sindikala da eta ahaltasun nabarmenak ditu etorkizunera begira.

Adiera horretan, 5. Biltzar Nagusi honek, azken urteetan garatutako bidea sakondu behar du eta, era berean, eraikuntza nazional eta sozialaren estrategia egituratzeko helburuan, LAB eta euskal gehiengo sindikal osoa Ezker Abertzalearen kapital handitzat balioetsi behar dugu.